

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

30. zk.

2008ko martia

URTEA GOGOTSU AMAITU



ta GOGOTSUAGO HASI



X.IPUIN LEHIAKETA

Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalen "Ipuin lehiaketa" ekimenak aurten arrakasta handia izan dau, azken edizino honetan parte hartzaileen kopurua bikoiztu egin da eta!!! Lanen kalitatea be ez da atzean geratu eta eutsi deutso bai, ondotxo be, orain arteko mailari. Hori guztiori kontutan hartuta, epaimahaikideek, beste behin be, lan itzela egin dabe lehenengo sariak aukeratzeko orduan.

Sari banaketea Meñakako Bekoabadene txokoan egin zan, abenduaren 14an. Kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sarituak etxeetara doan bialduko dan liburuxkan bildu dira.

**ARRAPIO ANTZERKI IKUSKIZUNA MEÑAKAN DORO ZOBARANEN ESKUTIK**

2007ko abenduaren 15ean Meñakako Udal kultura aretoan antzerki ikuskizuna izan zan gazte zein helduentzat. Gaia mitologikoa zan eta euskal hizkuntzari oso lotua egoan. Eszenografia berezia erabili eban Dorok bere ikuskizunean eta Gabon inguruan aproposak diren ipuinak eta pasarteez gozatzeko aukera izan genduan Meñakan.

"ARRIETAKO BIZILAGUNEN JAKITURIA" LIBURUA

Emon dau, emon dau urte biko beharrak emaitzea. Prozesuak luze jo dauala pentsatu leike baten batek, baina egia da, baita be, atzean lan handia egon dala: Arrietako bizilagunakaz alkartu, haiengandik jasotako kontakizun, pasadizo, kanta eta argazkiak aztertu, orraztu, sailkatu, prestatu, berraztertu... Eta hara, horren guztiorren emaitza: "Arrietako bizilagunen jakituria" liburua. Gu geu benetan merezidu izan daulakoan gagoz Mendabalde Kultur Alkartek eta Arrietako Udalak egindako behar handiak. Orain irakurleak egin beharko dau liburua epaitu. Irakurri, gozatu eta atzetik jatorkuzanei zabaldu. Benetako altxorra dogu eta.

**"LEHEN LAGUNTZAK" IKASTAROA EGITEKO AUKEREA FRUIZEN**

"Lehen Laguntzak" ikastaroa egiteko aukerea dago Fruizen. 20 orduko, 40 orduko edota 60 orduko moduluak eskainiko dira. Batez be gazteok, animatu zaitzee; ikastaroa lagungarri izango jatzue zeuon prestakuntza hobetzeko (20 orduko moduluagaz adibidez) eta baita be (60 orduko modulua egin ezker), titulua lortu eta anbulantzia-laguntzaile, sorosle... izateko. "Lehen laguntzak" ikastaroa apirila-maiatza-ekaineko zapatuetan egingo da, Fruizen bertan. Izena emoteko epea zabalik dago, baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa izatea da. Fruizen erroldatuek erabateko lehentasuna eukiko dabe.

LANTZ HERRIRA, INAUTERIETAN

Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek autobusa antolatu eben hain entzutetsuak diran Lantzeko inauterietara joateko. Hogeita hamar bat lagun batu ziran, egia esan, ez da kopuru txarra kontutan izanda, zezeilaren 5a gehienontzat behar eguna izan zala.

**TAXI ZERBITZUA GAMIZ-FIKAN**

2008 honek Taxi Zerbitzua ekarri dau Gamiz-Fika udalerrira. Egoitza Ergoien auzoko "Elortatxu" baserrian dauko. Gamiz-Fikako taxi zerbitzuaren beharrik euki ezkeron, jakizue, telefono honeetara deitu behar dozuela: 656 798 253 edota 648 563 804.

HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOA

Uribe-Butroe Zerbitzu Mankomunitateak kudeatuko dau aurrerantzean hondakinen bilketa eta garraio sistema honako udalerrietan: Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Meñaka. Aurrerantzean, etxeko trasteak eta (koltxoiak...) biltzeko zerbitzua be egongo da hilean-hilean. Gogoratu Uribe-Butroe Zerbitzu Mankomunitateak, gaur gaurkoz, Maruri-Jatabeko udaletxean daukola egoitza.

GAMIZ-FIKA

FRONTENIS ETA PALA TXAPELKETAK GAMIZ-FIKAN

Abenduaren 30ean jokatu ziran Fikako frontoian Gabonetako Txapelketaren finalak.

Egun aproposa urten zan eguraldi aldetik eta bertaraino hurbildu ziranek oso ondo pasatu eben.

Jai giroa emon gura izan jakon txapelketari eta frontoian bertan txosnatxoa jarri eben Fikako jaietako komisino- noko gazteek. Tortilla eta salda bero-beroak itzel egon ziran eta bene-benetan eskertu ziran.

Txapelketari jagokonez, maila nahiko ona izan zan eta, lehenengo aldia izateko, parte hartze polita egon zan; izan be, guztira 21 bikote aurkeztu ziran!!!

Azpmarratzekoa eta txalotzekoa izan zan parte hartzaileen jarrera ona eta joko garbia. Oso ondo gazteok!!

Gamiz-Fikako Udalak eskerrak emon gura deutseez txapelketan parte hartu eben guztiei. Eskerrik asko ba, txapelketa aurrera ateratzen lagundu dozuen guzti-guztioi.

Gamiz-Fikako Gabonetako Frontenis eta Pala Txapelketaren irabazleak:

-Frontenis (umeak): Asier Crespo eta Iker Sarria.

-Frontenis (helduak): Jon Madariaga eta Ekain Etxebarria.

-Pala: Gorka Madariaga eta Ekain Etxebarria.

Esku-pilota erakustaldia be izan genduan; partida benetan polita jokatu eben etorri ziran bikoteek, eta egia esan, gehiagoren gogoagaz be geratu ginan. Datorren urtean izan beharko!!!



BASATOSTEAK

Joan da urtarrilaren 27an, goizeko 10:00etan talde polita alkartu eta han joan ginan paseotxo bat eginez San Migeleko ermitaraino. Bidean geldialditxo bat egin genduan eta Gamizko errota bisitatu genduan. Han, Luisek sasoi batean ezinbesteko eta hain ugariak ziran erroten funtzionamenduaren gaineko azalpenak emon euskuzan. Horren ostean, Gamizko frontoian txitxi-burruntzi egin genduan, musika eta guzti.



AGATE DEUNA

Tradizioak agintzen dauan moduan, Agate egunaren bezperan herriko koruaren aparteko laguntzagaz batera, santa eskean ibili ginan herrian. Lehenengo kantaldia Gamizen, meza ostean, egin zan eta amaierakoa, Fikako txokoan. Oso giro polita sortu zan eta, egia esan, bat baino gehiago jarraitzeko gogoagaz geratu zan. Egon lasai, eukiko dogu-ta datorren urtean be auzorik auzo abesten joateko aukerea.



ARRIETA

HERRI BIZIZ BETEA

Datozen hileetako KULTUR EKINTZAK

DATA	EKINTZA	ZEHAZTASUNAK
OTSAILA	IRAKURKETA LEHIAKETA	Irakurketa lehiaketari hasiera emon jako. Otsaila-martia-apirila bitartean egingo da. Parte hartzaileek hilean liburu bat irakurri behar izango dabe.
OTSAILAK 2	INAUSKETA IKASTAROA	Saio teoriko-praktikoa. 9:30etatik 13:30etara
OTSAILAK 5	ARATOSTEAK	LANTZera irteera (Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fika)
OTSAILA	HERRIEN ARTEKO IPUIN LIBURUXKA	2007ko ipuin lehiaketako lan saridunekin liburuxka kaleratu.
MARTXOA	“Arrietako bizilagunen jakituria” liburua	JENDAURREKO AURKEZPENA
APIRILAK 18	BIDEO FORUM	“Nomadak TX” bideo-dokumentala eskainiko da Kultur Etxean. Ostein, solasalditxoa egileakaz.
APIRILAK 25	IRAKURKETA LEHIAKETA	-Ipuin kontalaria -Sari banaketa
EKAINAK 1	GAZTE MUSIKARIEN KONTZERTUA	Arrietako Udalak Saramus Kultur Alkartegaz batera antolatutako ekimena.
EKIANAK 22	SAN LUIS	-Meza eta trikitixa
EKAINA 23	SAN JUAN	-Txokolatea, trikitixa eta San Juan sua.
EKAINA 27	ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN	Ikastaroetan ibilitakoek egindako lanen erakusketa, ikasturte amaieran.
UZTAILA OSOAN	UDALEKU IREKIAK	Kirolak, jolasak eta tailerrak, astelehenetik barikura, 6-13 urte bitartekoentzat.
UZTAILAK 13	SAN KRISTOBAL	-Trikitixa, meza, bakailao jana
UZTAILAK 19	IRTEERA	(“Txinbito”an osteratxoa eta lehengo eta gaurko Bilbo alderatu...)
UZTAILAK 31	SAN INAXIO	-Donienera ibilaldia -Argazki Lehiaketea

SANTA AGEDA 08

Zezeilaren 3an (domeka), beste urte batez, Arrietako koruko partaideak eta hainbat herritar alkartu ziren Santa Ageda abesten joateko. Orain arteko ohitureari segiduz, goizeko 9:00etan plaza alkartu eta auzorik auzo ibili ziran kantuan. Ordu biak inguruan herriko tabernan bazkaldu eta indarrak hartu ostean, barriro ekin eutsien, animoso, kantatzeari. Arrastiko 18:00rak inguruan itxi eutsian kantatzeari, pozik herritarrek ondo hartu ebalako eta datorren urtereari begirako planak egiten.



FRUIZ

FRUZIO?? Nor dogu Fruzio?

FRUZIO Fruizko Udal liburutegiaren maskotea da. Eta irudian ikusten dozuenez, benetan da originala gero, gure iditxo hau!, hain da originala irakurtzea be ikaragarri gustatzen jakola, eta ia hori non ikusi dan!!

Orain momentuan ze liburu dabilen irakurtzen galdetu deusgu, eta zera esan deusku: Bernardo Atxagaren “Behi euskaldun baten memoriak” dabilela leiduten, polita dala sano eta irakurri barik badaukogu irakurtzeko, gustatu egingo jakula eta konturatuko garela abereok be originalak eta ausartak izan geintezela sano. Liburua irakurri ostein, gura izan ezker, liburuari buruzko solasalditxo egin geinkela dinosku Fruziok, bera prest dagoela, ia zer deritxozuen, liburuen egunean berean edo... Pentsatu, eta Fruzioren proposamenagaz konforme bazagozee, utzi mezua www.fruiz.net helbidean, Fruizko udal liburutegian edota udaletxean.

Amaitzeko esan, Fruzio herritik sortua dala: irudia guraso batek egin dau (Jonek), eta kolorea eta izena erabagitzeko lehiaketa bat egin zan; lehiaketa 9 lagunek hartu eben parte.

Orain Liburutegiaren maskotea ezagutzera emon gura da eta Fruizko Udalak liburu markatzaileak, udal liburutegiaren erabiltzaileentzako karpetak... aterako dauz.

KOLOREA: Olatz Enzunza

IZENA: Yune Mallona

IRUDIA: Jone Elias



- Yune, zer dala-ta ipini zeuntsan Fruzio izena?

- Fruzio hitz konposatu bat da. Alde batetik, bizi garen herriaren omenez dago aukeratuta; eta beste alde batetik, nire aititeren omenez, gure aititeren izena Luzio dalako.

Udabarriari begira GRAFFITI IKASTAROA antolatzeko lanetan dabil Fruizko Udala. Ikastaroa teoriko/praktikoa izango da eta zapatuetan egingo da. Izena emoteko epea zabalik dago. Interesatuta bazagoz, deitu Fruizko udaletxera eta emon izena beranduegi egin baino lehen.

Ikastaro emoleak benetako “graffiteroak” izango dira eta euren beharraren nondik norako guztiak azalduko dabez.



Aste Santuetako oporretan (martxoaren 26an edota 27an) EITBk Miramonen (Donostia) daukon egoitzara joango gara. Animatzen garen guztiok aukerea eukiko dogu bisita gidatua egin eta EITBko egoitza barrizatua bertatik bertara ikusteko. Gainera, EITBko txoritxuek esan deusku horreek egunetan “Goenkale” egongo dirala grabatzen eta, nork jakin!, baliteke egun horreetan “extra”ren bat be behar izatea telesailerako. Ume, gazte zein helduok interesatuta bazagozee deitu Fruizko udaletxera (94 615 32 10) eta emon zuen datuak ahalik eta arinen.

ALKARRIZKETA

Euskadin 12 eta 13 urte daukeezan neskatan, gaztetxoan mailan, mila fitxa inguru dagoz futbol 7an. Horien artetik, 12 aukeratu dabez Euskadiko selekzinorako, eta bat Fruizko Jone Bilbao Lotina 13 urteko gaztea da.

-Jone, nongoak dira Euskadiko selekzinoagaz olgetako aukeratu dabezan jokalariaik?

- Zazpi Bizkaikoak, hiru gipuzkoarrak eta bi arabarrak. Hamabi guztira.

-Nor da entrenatzailea eta nongoa da?

- Entrenatzailea Marian Gil deitzen da eta gipuzkoarra da, uste dot Erreterian bizi dala.

- Zeintzuk izan dira Euskadiko selekzinoagaz parte hartzeko emon behar izan dozuzan urratsak?

- Lehenengo Bizkaiko jokalaria onenak aukeratzeko pare bat entrenamendu egin genduzan Galdakaon Marianen gidaritzapean. Gipuzkoan eta Araban be gauza berdina egin eben hango onenak elejiduteko. Hautatze-prozesu horretatik, 3 probintzietako 25 jokalaria gelditu gintzezan. Gero, beste 5 edo 6 entrenamendu egin genduzan Ortuellan eta Erreterian eta entrenamendu horreetan lehenengo 25etik 16 gelditu ginen, azkenean, 12 gelditu arte.

- Zein txapelketatan hartu dozue parte?

- Abenduan, 6tik 9rako zubian, elkarte autonomoen arteko Espainiako txapelketan hartu genduan parte Valentzian, eta oso ondo pasatu genduan.

- Ze emaitza lortu zenduen?

- 14 alkarte autonomotik 7. egin genduan eta ezin da esan pozik geratzeko emaitzak lortu genduzanik. Urduritasunagatik edo, lehen partidua 2-1 galdu genduan Irla Balearren kontra. Txapeldunak izateko aukera barik gelditu gintzezan. Aragoiri 4-2 irabazi geuntson eta Kataluniagaz bana bardindu genduan. Nire

ustez, txapelketa irabazteko moduko taldea euki genduan.

- Bitxikeriaren bat kontatuko deuskuzu?

- Bai, taldeko delegatuak eta beste jokalaria batzuk entrenamenduetan eta bidaietan beti esaten eus-teen: "aupa Fruiz", "hor doa Fruiztarra"... eta holangoak. Ez dakit herri txikia dalako edo, grazia emoten deusie. Gehienek ez ekien esistitzen zanik be.

- Euskadigaz badaukozue txapelketa gehi-ago?

- Bai, martxoaren azken asteburuan izango dogu hurrengo txapelketa Galdakaon, eta, besteak beste, Nafarroako eta Errioxako selekzinoak hartuko dabe parte.



- *Zein taldetan olgetan dozu liga arruntean?*

- Lehen beti Lauron, nire ikastolan, eta aurtengo denboraldian Barakaldoko Pauldarrak taldean.

- *Ze asmo daukazu etorkizunerako, Athletic-edo?*

- Niri futbola pilo bat gustatzen jat eta nire helburua ondo pasatzea eta lagunak egitea da. Ez daukat beste pentsamendurik.

- *Zenbat urte daroazuz futbolean olgetan?*

- Bi neska-mutilekaz eta laugarrena oraingoa neskekaz bakarrik. Seigarrena guztira.

- *Txoritxu batek esan deust 4 edo 5 gol sartzen dozuzela bataz beste partiduko. Zeintzuk dira zure dohainak futbolean jokatzeko? Aurrelari jokatzan dozu ezta?*

- Aurtengo denboraldira arte aurrelari jokatu dodaz ia partidu guztiak, baina orain zelai erdian be olgetan dot eta oso gustura gainera. Hala eta guztiz, defentsa postuan be olgau dot Euskadiko selekzinoagaz.



**ANIMO NESKAK !!!!
HOLANTXE SEGIDU !!!**

ARRIETA, FRUIZ ETA GAMIZ-FIKAKO UDALEK EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAGAZ AURRERA JARRAITUKO DABE



euskara biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskera

Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako udalerriak udalerrri txikiak dira. Euskerearen normalizazio kontuatarako alkartu eta Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udal Alkartea osatu eben 2003an. Udal Alkartea osatu eta, berehala, Euskerea Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)garatzeko konpromisoa hartu eben.

Euskerea Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) helburu nagusia honakoa zan eta da: “Gurean euskeraz bizi nahi daben herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diran hizkuntza-politikako neurriak erabagitzea eta bul-tzatzea. Maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskarearen berreskurapen osoa lortzeko euskarearen aldeko urratsak areagotzea”.

Helburu horri begira hiru Udalek 2004-2007 Plan Estrategikoa diseinatu eben sasoi haretan eta joandako lau urteotan euskerearen ondorengoetaratzeari, erabilereari eta elikadurari begirako hainbat neurri eta ekintza egin izan dira.

Aurton, Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek plana beste lau urtez luzatzeko erabagia hartu dabe.

Hiru udalerrietako kultura zinegotziakaz, hainbat herritarrekaz eta AEKren ordezkari bategaz osatutako Euskara Aholku Batzorde bat eratu da eta batzorde horren laguntzagaz aitatu doguzan udal horreek 2008-2011 Plan Estrategikoa diseinatu dabe.

Hiru udalerrientzako bat bera izango dan plan estrategikoa adostu eta onartu ondoren, udal bakoitzak udalerrri bakoitzaren ezaugarri eta lehentasunak kontuan hartutako dauzan urteko kudeaketa plana garatu dau. Halan be, orain arteko ibilbideari jarraituta hiru udalek alkarregaz hainbat ekimen egingo dabez.

TAKET LIBURUAREN AURKEZPENA MEÑAKAN

Taket bertsolariaren ibilerak izeneko liburua aurkeztu eban Asier Legarretak Meñakan pasa dan urrian. Hainbat meñakarrek hartu eban parte liburu honetan eta guztiak izan ziran lekuko egun eder horretan. Luis Baraiazarra Meñakako semea eta olerkariak egin eban sarrera hitzaldia, Xabier Amuriza, eta Asier Legarretagaz batera.

Jarraian herri bazkaria izan zan frontoian, Xabier Amuriza eta Xabi Paia bertsolariakaz eta herriko trikitilariakaz batera. Ederto baten amaitu zan eguna, eta hurrengo urtean be antzeko zeozer egitekotan geratu ziran meñakarrak.



URIBEALDEKO IDI-PROBAN FINALA MEÑAKAN (2007/10/27)

Gure eskualdeko idi-proben finala Meñakan jokatu zan. Hainbat jente etorri zan eta hotza egin arren kanpoan giro beroa sumatu zan probalekuan. Bi zatitan egin zan finala. Arratsaldeko 17:00etan: Iketza, Landazabal eta Txertudi. Eta bigarren zatian gaueko 22:00etan: Aurtenetxe Jatetxea, Lasa eta Txauson.

Omenaldia egin jakon Juan Jose Bilbao urduliztarrari, akulari eroandako urteekatik.

Azkenik holan geratu zan klasifikazioa: Lehenengo eta txapelduna; Lasa 50 untzegaz. Bigarren Txertudi 47 untzegaz. Hirugarren Landazabal 46 untzegaz. Laugarren Txauson 44 untze eta 1/4gaz. Bosgarren Iketza 44 untze eta 2 metrogaz. Seigarren Aurtenetxe Jatetxea 44 untzegaz.



ORDENAGAILUA BE EUSKERAZ

Zelan, baina? Nora jo behar dogu?

Honaxe!!! Honeek helbideetan daukozue programak eta euskeraz jaisteko aukerea



www.euskara.euskadi.net
Euskerazko Software bilduma.
Programak jaisteko aukerea.




http://softkat.ueu.org
Euskerazko Software bilduma.
Programak jaisteko aukerea.



www.euskalgnu.org
Software librean oinarritzen diran
aplikazioak euskaratzeko web gunea.



www.librezale.org
Software librea lehenesten dauan gune
honetan hainbat proiekturen emaitza
deskargatzeko aukerea dago.



www.3arrano.org

Hemen aurkituko dozuez debaldeko jokoak,
gailuak, irakurgaiak, konputagailuen gaine-
ko bloga eta euskerea aztertzeo agerkaria.

ETA BLOG BAT EGIN GURA IZAN EZKERO, ZELAN???



www.blogak.com

Bloga edonork euskeraz sortzeo tresna.



www.blogari.net

Blogak erraz sortzeo baliabideak
gune honetan.



http://mundua.com

Blogak edo weblogak sortzeo aukerea
emoten dauan debaldeko zerbitzua.

SANTA AGEDA MEÑAKAN 2008KO ZEZEILEAN

Zezeileko lehenengo asteburuan, ia 60 lagun batu ginan Meñakan santa eskean. Ametzalarretik, Meñakabarreneko zaharren egoitzara joan ginan. Hurrengo egunean, domekaz, Emerandoko Santa Elenan hasi eta Atxeagane, Bidebieta, Larrauri, Meñakan bertan, meza ostean eta azkenik txokoan abestu gendun, bazkari eder bategaz amaiera polit bat emonaz.

Datorren urtean Meñakako Santa Ageda tradizionala berreskuratu gura dogu. Jaso doguz koplak, eta proposamena jendeak gura badeu, aurrera doa.

Inoizkorik eta jende gehien ibili gara aurton santa eskean, batez be umeak. Eskerrik asko danori, eta hurrengo urterarte.

Hona hemen orain berrogeita hamar urte baino arinago Nikolas Zeltsokok Meñakan abestuten ebazan santa eske koplak:

1)

Bedeinkatua izan dadila
etxe honetako jentia,
pobre ta umil dabiltzanentzat
badauke borondatia.

2)

Santa Ageda ez da izaten
beti hilian hilian,
urtean behin da berian bere
zezeilaren bostian.

3)

Santa Martiri maitia
dago errukiz betia,
berak alkantzau daigula danoi
osasuna ta bakia.

4)

Zeru altuan izarra
erreka ondoan leizarra,
etxe honetako nagusi jaunak
urregorritzko bizarra.

5)

Hegaz-hegazka etorritzen da
txitxe artera mirue,
arrotzetxurik ez badekozu
bardin deizkule dirue.

6)

Nork esan leiken zer pasa eban
munduan Santa Agedak.
Lehendabiziko azotadua
kendu ziozen bularrak.

7)

Errotapian harrixe
haren ganian txorixe,
eraztuntxutik paseuko leike
Maritxu zure garrixo.

8)

Esku batian pezeta zuri
bestian lukenka paria,
hareri bere gitxi eritzita
altzoan dozena arrutzia.

9)

Emongo bazu emoizu
bestelan ezetz esaizu,
beste lekuren baterako be
berandu egiten jaku.

10)

Portale munen azkora
ixe koplarik asko da,
ixe koplarik asko da eta
goazen hemendik auzora.

11)

Orain hemendik bagoaz eta
agur hurrengorartian,
“Adiosik” be eztogu eta
agur ikusi artian.

12)

Hortxe goitxuen piñue
Maritxuk ein deust kiñue,
berak esan dost emongoztela
tabernarako dirue.



OLENTZERO BESTE BEHIN ETORRI ZAN SOLLUBETIK MEÑAKARA

Gabon gauean Olentzeroren zain egozan hainbat ume Meñakan. Eta holako baten han etorri zan Olentzero Sollubetik bere asto, laguntzaile eta guzti. Bitartean Mari Domingi herrian zehar ebilen umeakaz. Hotza egin arren giro aparta sortu zan Olentzeroren inguruan. Kantuka, trikitixa, eta umeen poztasuna, aski izan ziran giroa berotzeko...

UMEEN TXOKOA

1.-Urteko ospakizunetatik zein dozu gustukoena?
(gabonak, aratosteak, Agate deuna, herriko jaiak...)

Zergaitik?

Zer egiten dozu?

Non?

Nortzukaz?

2.-Eta gitxien gustetan jatzuna? Zergaitik?



JOSEBA BELDARRAIN
(MEÑAKA), 6 URTE

- 1.- Herriko jaiak dira ospakizunetatik gehien gustaten jatezenak. Buru handiak dagozalako, lagunakaz jolastu eta txutxerriak erosten dodazalako.
- 2.- Gitxien gustaten jatana Agate Deuna, asko aspertzen naze-lako.



JEANETTE BARRANCO
IBAIBARRAGA (GAMIZ-FIKA)

- 1.- Santa Ageda. Mungia guztitik goazelako eskolako guztiak abestuten eta palua jotzen.
- 2.- Herriko jaiak. Ez dau ezer niri gustetan dastena.



YUNE MALLONA (FRUIZ)

- 1.- Danak dodaz gustuko, baina gustukuenak aratosteak direz; Mundakoara joaten naz atorrak eta lamiak ikusten, eta txikitxutatik joan izan nazenez ohitura bihurtu da nire familian. Bertan nire familiagaz eta Mundakako lagunakaz egoten naz.
- 2.- Ez daukot gitxien gustetan dastenik. Nire ustez, jai guztiek daukie arrazoi bat eta guztietan ondo pasetan dot.


DAVID LARRAURI DE LA FUENTE
(ARRIETA), 9 URTE




- 1.- Gabonak, oso ondo pasatzen dodalako eta familiagaz nago-elako.
- 2.- Gitxien, Agate Deuna ez jatalako gustaten abestea.

DENPORA-PASAK

Jeroglifikoak



Nondik zatoz?



Emakumezkoen izena


ZERI ESATEN JAKO... PEKOROTZA ????

Galdetu etxean, auzoan, eskolan...
Hona hemen laguntzatxo bat,
nondik tiratu jakin daizun.



ESAERA ZAHARRAK

- Martxo lehorra, maiatza bustia.
- Martxoan lainoa noraino, apirillean edurra haraiño.
- Martxo guzurti, gaur euri, bihar eguzki.
- Andra Mari martikoz agertu zan kuku; San Pedroz martxau egin jaku.
- Martxoko ilberie, kipule gorrixe ipintteko sasoe onena.



(<http://www.berria.info/blogak/pellozabala>)

TXISTEAK

Zer esaten dau ET-k limoi bat jaten dauanean?

- Mikatzaaaaaaaaa!

(www.euskaraz.net)


**NON DAGO ATARATA ARGAZKI HAU?
ARRIETAN, FRUIZEN, GAMIZ-FIKAN
ALA MEÑAKAN? BAIETZ IGARRI !!!**



Andoni Uriarte,
Fruiztarrak berbetan
(moldatuta)

**ZENBAKI HONETAN PARTE
HARTU DABE:**

**OLATZ AXPE
JON GOIRIZELAIA
ZURIÑE GOTI
ASIER LEGARRETA
NEREA MALLONA
ELIXABETE URIARTE**



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura